



Bizi Sagardoa elkartearen aurkezpen ekitaldia, Donostian. J.C. RUIZ / ARGAZKI PRESS

SAGARDOAREN KULTURA EZAGUTARAZTEN

Bizi Sagardoa elkarteak sagarraren eta sagardoaren kultura eta turismoa sustatzeko helburuarekin sortu da, eta, horretarako, Euskal Herri osoko sagardogile elkarteak eta sagarraren eta sagardoaren inguruko hainbat eragile elkartu dira.

Sagardoak badu eskaintza turistiko oso hedatu bat: txotxa. Baina, horrez gain, aukera turistiko handiak ditu, eta horiek bildu, sortu eta sustatzea da Bizi Sagardoa elkartearen helburua. 2013ko apirilaren 15ean, Donostiako Aquariumean izan zen Bizi Sagardoa elkartearen aurkezteko ekitaldia.

Gaur egun badira Euskal Herri osoan sagardoaren inguruko eskaintza turistikoa duten udalerrak, museoak, sa-

gardotegiak eta abar, eta bisita gidatuak, dastatze gidatuak, sagardo egunak eta beste hainbat ekitaldi antolatzen dituzte.

Bakoitzak bere aldetik lan egin beharrean eta elkarrekin indar handiagoa izateko, zenbait eragile bildu dira elkarlanean aritzeko. Bizi Sagardoa elkartera guztira Euskal Herriko 62 sagardotegi eta zenbait udal, museo eta bestelako eragile bildu dira.

Elkarlan horren ondorioz, zenbait proiektu martxan jarri dituzte jadanik, eta aurtengo txotx denboraldia bukatzerako aurkeztuko dituzte. Halaber, elkarlanerako bideak zehazten ari dira etorkizunera begira. Turismo aldetik indar handia duen ekintza da txotxa, urtero 800.000 bisitaritik gora biltzen baititu.

Horrez gain, bisita gidatueta eta dastatze gidatueta gero eta jende gehiago biltzen da, sagardo egunetara eta sagardoaren inguruko beste hainbat ekitalditara ere bai, eta sagardotegiek eta bestelako eragileek ere gero eta eskaintza zabalagoa dute sagarraren eta sagardoaren munduari lotuta. Hala, sagardoaren kulturaren inguruko sorta turistikoak sortu eta sustatzea da Bizi Sagardoaren asmoa.

Informazio gehiago, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen (web helbidea: sagardotegiak.com; telefono zenbakia: 943-33 68 11).



Sagardotegiko menua 27€

Ostiraletan sagardotegi menua 20€

Sagardoa txotxetik

Hainbat sagardotegietako sagardoak dastatzeko aukera

Tel.: 943-83 42 04
ameztigain@live.com
Gran Camping
ZARAUZ



R. ZABALA

Sagardotegia

Eguerdiz zabalik ostirala, larunbata eta igandea
Ganex beti irekita

Txotx denboraldian bakarrik

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO SAGARDO LEHIAKETAREN TXAPELDUNA HIRU ALDITAN

Garagartza baserria
Tel.: 943-69 07 74
20150 ADUNA (Gipuzkoa)